

## Familia Ugariaren Titulua

### Fitxa interneten bistaratu

### INFORMAZIO OROKORRA

#### Helburua

Familia Ugariaren Titulua familia ugari bati izaera hori aitortzen dion titulu ofiziala da eta hainbat eskubide lortzeko aukera ematen du

#### Nork tramitatzen du

- GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA
- Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia
- Haurren eta Nerabeen babeseko Zerbitzua

#### Baldintzak

Honako baldintzak betetzen dituzten familiak: Familia ugartzat honela osatutakoak jotzen dira:

- Aurreko ahaide bat edo bi, eta hiru seme-alaba edo gehiago, komunak izan edo ez.
- Aurreko ahaide bat edo bi, eta bi seme-alaba, komunak izan edo ez, betiere gutxienez horietako batek desgaitasuna badu (% 33koa edo handiagoa) edo lanerako ezintasuna badu.
  - Aurreko ahaide bi, biak desgaituak direnean (% 33 edo gehiago), edo, gutxienez, horietako batek % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duenean, edo lanerako ezintasuna dutenean, bi seme-alaba badituzte, komunak izan edo ez.
  - Aita edo ama banandua edo dibortziatua, eta hiru seme-alaba edo gehiago, komunak izan edo ez, baldin eta aita horren edo ama horren mende badaude ekonomikoki; nahiz eta familia unitate desberdinetan egon eta ez bizi ezkontza-egoitzan.
  - Aita bat edo ama bat, seme-alaba bi dituen, baldin eta beste gurasoa hilik badago
    - Tutoretzapean, zaintzapean edo babespean dauden eta aitaren eta amaren aldetik umezurtzak diren neba-arreba bi edo gehiago, tutorearekin, zaintzailearekin edo babeslearekin bizi badira, baina ez badira haren kontura bizi.
    - Aitaren eta amaren aldetik umezurtzak diren hiru neba-arreba edo gehiago, 18 urtetik gorakoak, edo bi, haietako batek desgaitasuna badu, elkarrekin bizi badira eta euren artean menpekotasun ekonomikoa badute

### HASIERA ETA ESKAERA

#### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Eskaera formularioa](#)

#### Aurkeztu beharreko agiriak

» Erroldatze ziurtagiria    » Familia liburua    » NA edo nortasuna egiaztatzeko agiria

- Elkarbizitza ziurtagiria
- Familia liburua
- NA edo nortasuna egiaztatzeko agiria
- Agiri bereziak, honelako egoera bereziak egiaztatzeko: minusbaliotasuna (gurasoena nahiz seme-alabena), alarguntasuna, ikaslea (21 urtetik gorako seme-alabak).
- Mendekotasun ekonomikoaren egiaztagiria (PFEZ, nominak, Lanbiden izena emandako txostena eta lan egoera...)
- **Banantze edo dibortzio kasuan:**
- Epaiaren kopia eta hitzarmen arau-emailearena, seme-alaben zaintza eta babespea egiaztatzeko
- **Europar Batasuneko herrialdekoak ez diren pertsonak**, aurreko agiriak ez ezik, beste hauek ere aurkeztu behar dituzte:
- Tituluan azaltzen diren kide guztien egoitza baimena.

#### Eskaera moduak

» Internet    » Presentziala

#### Internet bidezko eskaera

[Sakatu tramitazioa hasteko](#)

#### Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Sinadura elektronikoa/ziurtagiri digitala    » Pasahitza

## Zuzeneko arretarako bulegoak

### Gizarte Politikako Departamentuko Informazio Bulegoa

Txara 2, Zarategi pasealekua 99, Intxaurren  
20015 Donostia-San Sebastián

T: 943 11 25 11 - [info.gizartekintza@gipuzkoa.eus](mailto:info.gizartekintza@gipuzkoa.eus)

### Herritarren Informazioko eta Arretako Bulego Zentrala

Gipuzkoa plaza zk.g.

20004 Donostia-San Sebastián

T: 943 11 21 10 / Fax: 943 429 961 - [Info.gipuzkoa@gipuzkoa.eus](mailto:Info.gipuzkoa@gipuzkoa.eus)

Beste udalerriren batean bizi direnek beren udaleko gizarte zerbitzuen bidez ere izapidetu dezakete Familia Ugariaren Titulua, salbuespenak ezik (aldeztu aurretik zure udalerrian galdetu).

## ARAUDIA

---

- Ley 40/2003, de 18 de noviembre, de Protección a las Familias Numerosas ( BOE núm. 277, de 19 de noviembre de 2003)
- 1621/2005 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Familia Ugariak Babesteko 2003ko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena (BOE, 15. zk., 2006ko urtarrilaren 18koa)
- Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia. (BOE núm. 180, de 29 de julio de 2015)

## INFORMAZIO OSAGARRIA

---

### Informazio gehigarria

Tituluak berritzeko:

Familiako kide kopurua aldatzen denean berritu behar da Familia Ugariaren Titulua, edota seme-alabaren baten desgaitasun egoera aldatzen denean, aldaketa horrek kategorian eraginik baldin badauka. Urtero berritu behar da seme-alabaren batek 21 urte betzen dituztenean eta ekonomikoki mendean dagoenean, 26 urte bete arte.

Titulua berritzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Aurreko titulua.
- Agiri bereziak, honelako egoera bereziak edo aldaketak egiaztatzeko: minusbaliotasuna, alarguntasuna, banantzea edo dibortzioa.
- Mendekotasun ekonomikoaren egiaztagiria (PFEZ, nominak, Lanbidek egindako txostenak, inskripzio aldiei eta lan egoerari buruzkoak,...) edo ikasle egoerarena (matrikulazio agiria).